




Jokin Lizeaga, bere jaioterrian, Urnietan. Andoni CANELLADA / ARGAZKI PRESS

infraganti

JOKIN LIZEAGA

Azken egunak bereziak izan dira Jokin Lizeagarentzat. Aurtengo Zegama-Aizkorri lasterketa errusiar mendi baten parekoa izan da beretzat. Orintxe goian, oraintxe behean. Euskal lasterkarien artean marka onena egitearen poza gailentzen zaio orain. Baina ordu batzuk lehenago bere etorkizunaren gainean laino beltzak besterik ez zituen ikusi.

Egunak eta orduak pasa ahala lasaitasuna berreskuratzen joan da Jokin Lizeaga (Urnietan, 1979). Irribarrea ere berreskuratu du, baina aurtengo Zegama-Aizkorri lasterketa ez du berehalakoan ahaztuko. «Ondo entrenatuta nengoen, banekien sasoian nengoela. Bezerperan, arratsaldeko zortzietan, koskor bat aurkitu nuen izter txokoan, ganglioan. Urduritasun puntua sortu zitzaidan. 'Infekzioen bat', pentsatu nuen. Gurasoen etxera joan nintzen. Aitari izter ondoko herniako ebakuntza egin zioten duela urte batzuk. Zalantza horrekin joan nintzen. Aitari erakutsi eta berak esan zidan barrabiletan

beste koskor bat neukala. Hiru nituen. Orduan bai, hitzik gabe geratu nintzen... Tumoreren bat izan zitekeela pentsatu nuen. Urgentziatara abiatu nintzen berehala. Antolatzaileei abisatu nien seguruena hurrengo egunean ez nintzela azalduko», gogoratu du.

Erietxean zain egin zituen hiruzpalau ordu haietan denetarik pasa zitzaion burutik. Medikua berehala lasaitu zuen: izter ondoko hernia zen. Sendagileak kontrakoa gomendatu arren, garbi zuen: Zegaman izango zen. «Ez nekien Ortzautean bertan geratuko ote nintzen berriz ere hestea atera zitzaidalako baina... Ordubete bada, horixe gozatuko dut, pentsatu nuen. Hasieran eskua izter txokora

eramaten nuen baina gero ahaztu eta karrera normal egin nuen. Ondo korritu nuen, ez nuen azkarrago hori egingo gertatu izan ez balitzait», kontatu du Lizeagak. Datorren astean egingo diote ebakuntza.

Mendi lasterketaren lehen kilometroetan sortzen den giroa ez zuen galdu nahi. «Berezia da, polita. Milaka kirolzale, mendizale, euskaltzale joaten dira. Horrek egiten du berezia. Ibilbidea oso polita da, aurkariak munduko onenak dira, Munduko Txapelketa da, baina jendearen animoak egiten du berezi. Pasaera batzuk daude oso hunkigarriak direnak. Pertsona normal izate-tik hainbeste jende animatzera pasatzen zara. Eta zu protagonista sentitzeak bizipen berezia

sortzen du. Gu kalean ez gaitu inork gelditzen eta han ehunka pertsonak zure izena oihukatzen dute. Ni ez naiz ezer, azkar korritzen dudala, besterik ez», argitu du.

Irteera eta iritsiera izan ziren okerrenak. Emozioei ezin eutsi. «Irteeran negarrez aritu nintzen. Polita izan beharrean gogorra egin zitzaidan. Bukaera ere kazetariak gertatutakoa gogoratu zidatenean berriz ere hondoratu egin nintzen... Ez nuen gozatu».

Hasi eta buka, 3 ordu, 59 minutu eta 21 segundo behar izan zituen lasterketa burutzeko. Inoizko markarik onena egin izanagatik helmuga zeharkatu ondorengo orduak ez ziren samurrak izan. «Gizakiak zer gutxi garen pentsatu nuen», dio.

Zerua eta amildegia. Biak oso distantzia gutxira bizi izan zituen. «Hamar ordu lehenago negarrez ari nintzen pentsatuz desastre batean murgiltzen ari nintzela. Bi emozioen nahasketak dezente sufriarazi zidan».

Ondorengo egunetan bai, egindakoari bere balioa eman dio. «Egindakoarekin pozik nago, lortu dudana ez delako erraza. Euskaldunen artean orain artean inork ez zuen lortua lau orduen azpitik egitea», nabarmendu du.

Ezin ahaztu euskal emakumeek aurten lortutako emaitzak. «Euskal Herriko emakume lasterkarien kopurua igotzen ari da eta haien errendimendua oso goian dago mundu mailan».

Aurten bosgarren aldiz zeharkatu du Zegama-Aizkorriko helmuga. «Lau karrera oso ondo egin ditut. Guztietan disfrutatu dut antzera, nahiz bosgarrenean bero izugarria egin zuen eta ez nuen denbora ona egin».

Azken hiru urteetan bosgarren, seigarren eta zortzigarren egin du. Urtetik urtera denbora hobetzen joan arren emaitzak txarragoak izan dira, dagoen lehia estuaren seinale.

Beste txapelketa batzuetan ez bezala, Zegama-Aizkorrikoa bere buruaren aurkako lehia da. «Argi dut irabaztea ezinezkoa zaidala. Irabaztera joateak suposatuko lidake emaitza okerragoa

izatea eta nire markaren bila joaten naiz. Urtero hobetzeak nahiko poztasun ematen dit».

Korrika egitea gozamenari lotuta dago urnietarrarentzat. «Une txarrak oso gutxi bizi izan ditut. Saiatzen naiz ahalik eta hobekien prestatzen baina bi ateak ditut irekita: ondo edo gaizki egitea».

Aizkorrin hodeietan dabilen «jainko txikia» sentitu ondoren ez du arazorik izaten lurrera jaisteko. «Badakit hurrengo egunean lanera joan behar dudala», esan du.

Gorpuzkera pribilegiatua du Lizeagak. «Genetika kontua da. Ni baino gehiago prestatzen direnak milaka izango dira eta ez dute Zegaman lehen euskaldunak izatea lortzen», dio.

Txikitatik gustatu zaio kirola egitea. «Agian ondo moldatzen nintzelako. Aldiz, dantza edo musika ez ditut landu dohainik ez dudalako [barreak]».

Bizikleta gainean eman zituen gaztaroko urteak, 20 urte bete arte. Ondoren 6-7 urtez batere kirol jarduerarik egin gabe egon zen.

Lanbidez Gorputz Hezkuntza-ko irakaslea da Nafarroan. Bigarren Hezkuntzan aritzen da. Lanetik itzultzean «egunero bi ordu egiten ditut autoan», dioherri inguruan, Onddi eta Adarra mendietara jotzen du entrenamenduak egitera. Ez da saio gogorrek egitearen zale. Tamaina hartua dio. Bere burua gehiegi estutu gabe, gorputz pribilegiatuari esker bere markak hobetzea lortzen du. «Prestatzaile fisikoa naiz; ez naiz batere metodikoa, eredu baten barruan nahiko anarkikoa naiz. Urteko asterik kargatuena 10-12 ordukoa izaten dut. Ez dut gustukoa gehiegi entrenatzea. Esfortzu handia suposatzen dit, batez ere buruari dagokionean, astean hiru egunetik gora entrenatzea», argitu du.

Tarteka kale egiten uzten dio bere buruari. «Gero emaitza nahiko onak ematen dizkit. Bizimodu normala egiten dut. Haurrekin ez egotea –3 urteko Lide alaba eta 3 hilabeteko Negu semea–, lagunekin ez egotea edo baserriko lanak uztea nahiko